

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ERRIBERAGOITIKO UDALA

#### Jendaurrean jartzea jarduera sailkatuaren lizentzia espedientea

Ekozelai SCK jarduera sailkaturako lizentzia eskatu dio udal honi, Antezanako 3 poligonoko 846 katastro lurzatian nabe bat eraikitzeko, zeinen zati bat ardi, behi eta zaldi ukuilutarako erabiliko den eta beste zatia biltegitarako.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babestearen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak 58.1 eta 58.2 artikuluetan xedatutakoa betez, jendaurrean jartzen da hamabost egun balio-dunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, ezarri nahi den jarduerak nolabait kalte egiten diela uste dutenek egoki jotzen dituzten oharrak aurkeztu ahal izateko udal idazkaritzan, bertan dagoen espedienteaz aztertu ondoren.

Adierazi, bidenabar, COVID-19k sortutako osasun krisia kudeatzeko, gobernuak alarma egoera dekretatu duela. Beraz, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak xedatutakoarekin bat etorritik, bertan behera gelditzen eta eten egiten dira prozedura-legeetan jurisdikzio ordena guztietarako xedatutako epeak. Epeak berriz ere kontaktzen hasiko dira errege dekretuak edo, hala badagokio, haren luzapenek indarra galtzen dutenean.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Pobes, 2020ko maiatzaren 13a

*Alkate-lehendakaria*

**JESÚS BERGANZA GONZÁLEZ**